Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

7015

AGINDUA, 2008ko azaroaren 25ekoa, Herrizaingo sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta bestelako toki erakundeei zuzendutako diru-laguntzak arautu eta horietarako deia egiten duena, mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak edota programak gara ditzaten.

Ibilgailuak eta horien erabilera orokorra gizarte garaikidearen ezaugarrietako bat da. Horren erabilerak gero eta pertsona eta salgai gehiago mugitzea ekarri du eta horrela tresna garrantzitsuena bihurtu da garapen ekonomikorako. Hala ere, erabiliegia izateak kalte asko sortu ditu, trafiko istripuen bidez, bai handitasunagatik zein larritasunagatik: sozialak, ekonomikoak eta osasun komunitariokoak.

Ondorio horiengatik bide-segurtasunaren eremuan erantzukizuna dugun erakundeok istripuak prebenitzeko edo sortu direnean ondorioak minimizatzeko neurri egokiak hartu behar ditugu. Ildo horri jarraiki, Bide Segurtasunaren Plan Estrategikoak ahaleginak pilatzeko eta istripuen prebentzio-ekintzetan inpaktua handiagoa izateko tresna erabilgarri eta egokia direla egiaztatu da.

EAErako Bide Segurtasunaren Plan Estrategikoak 2007-2010 trafiko-istripuetan 2010. urterako hildakoen kopurua % 50 murriztea du helburu, 2001eko datuak abiapuntutzat hartuta. Horretarako, planak hainbat ekintza-lerro ditu eta horien artetik hezkuntza nabarmentzen da, arrisku-portaerak prebenitzeko tresna baliagarria baita, gizarte-aldaketa eta –eraldaketaren elementua ere bai.

Trafiko-istripuak eta beren larritasuna murrizteko estrategia bezala ulertuta, mugikortasun segururako hezkuntzaren garapena istripuen tasa gehitzeko arriskua duten eremu guztiei dagokie, bai astialdian, bai lanean, bai ikastetxeetan. Mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea gizarte-garapenaren prozesua da, are eraginkorragoa, gizarte-eragileen sentsibilizazioa, inplikazioa eta konpromisoa handiagoa den heinean.

Horregatik, biztanleentzat prebentzioaren hezkuntza-ekintzak eta –programak sustatzea ezinbestekoa da eta helburuak giza faktorearen inguruan mugituko dira, faktore hori zuzeneko kausa bezala trafiko-istripu gehienetan ageri baita.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuak ematen didan eskuduntzaren indarrez (azaroaren 24ko EHAA, 224. zk.),

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

7015

ORDEN de 25 de noviembre de 2008, del Consejero de Interior, por la que se regulan y convocan subvenciones a Ayuntamientos y otras entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo de actividades y/o programas de educación para la movilidad segura.

Los vehículos y su uso generalizado constituyen una de las características de las sociedades contemporáneas. Su empleo ha contribuido a aumentar la movilidad de personas y mercancías y, por ende, al desarrollo económico. Sin embargo, su uso extendido ha creado también innumerables daños sociales, económicos y de salud comunitaria a través de los accidentes de tráfico, tanto por su magnitud como por su gravedad.

Estas consecuencias exigen que las distintas instituciones con responsabilidad en el ámbito de la seguridad vial tomemos medidas oportunas para prevenir los accidentes y para que, una vez producidos, se minimicen sus consecuencias. En este sentido, los Planes Estratégicos de Seguridad Vial han demostrado ser una herramienta útil y adecuada para aglutinar esfuerzos y conseguir un mayor impacto en las distintas acciones de prevención de accidentes.

El Plan Estratégico de Seguridad Vial para la CAPV 2007-2010 tiene como finalidad reducir el número de personas fallecidas en accidentes de tráfico en un 50% para el año 2010 con respecto al año 2001. Para ello, el Plan cuenta con diferentes líneas de acción, entre las que destaca la educación, por ser ésta una herramienta valiosa de prevención de comportamientos de riesgo y un elemento de cambio y transformación social.

El desarrollo de la educación para la movilidad segura, entendida como estrategia para disminuir los accidentes de tráfico y su gravedad, corresponde a todos los ámbitos donde haya un colectivo con riesgo de accidentalidad, sea en el tiempo libre, en el trabajo o en los centros educativos. Promover la educación para la movilidad segura supone un proceso de desarrollo social, tanto más eficaz cuanto mayor sea el grado de sensibilización, implicación y compromiso de los distintos agentes sociales.

Por ello, resulta imprescindible incentivar acciones y programas educativos de prevención dirigidos a la población cuyos objetivos giren en torno al factor humano, factor que está presente como causa directa en la mayoría de los accidentes de tráfico.

En virtud de la competencia que me otorga el Decreto 364/2005, de 8 de noviembre (BOPV n.º 224, de 24 de noviembre), sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta bestelako toki erakundeei zuzendutako diru-laguntzen deialdia arautzea da, 2009an mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak edota programak gauzatu ahal izateko.

2. artikulua.– Diru-kopurua.

1.– Diru-laguntzen programa honetara hirurehun eta berrogeita hamar mila (350.000) euro bideratuko dira, dagokion aurrekontu partidaren kontura. Ezarritako zenbateko osoa aldatu egin daiteke; horretarako, kontuan hartuko dira, batetik, eskatutako laguntzen orotarako zenbatekoa eta, bestetik, Herrizaingo Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontu-baliabiderik dagoenez; alabaina, laguntzei buruz ebatzi aurretik egin beharko da aldaketa hori. Horrelakorik gertatuz gero, jendaurrean jakinarazi beharko da Segurtasun sailburuordearen ebazpenaren bidez.

2.– Osasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura gastu-espedienteak aldez aurretik izapidetzea arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera, agindu honetako laguntzak ematerakoan, ordainketa-kreditu egokia eta nahikoa egon behar du 2009. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honek araututako diru-laguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta bestelako toki erakundeak izango dira, baldin eta 2009an mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak edota programak egiten badituzte.

2.– Ezin izango du deialdi honetan parte hartu diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduta duen administrazio-zehazpen edo zigor penalik jaso duen entitate eskatzaileak, edota horretarako ezgaitu dezakeen legezko inolako debekuan sarturik badago, sexu-diskriminazioagatik sortutakoak barne, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean horri emandako idazketaren arabera.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1. artikuluan aipatzen diren diru-laguntzak ondoren zehazten diren kontzeptuengatik eska daitezke:

– Hezkuntzako jarduerak edota programak, Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoan (2007-2010) ezarritako lehentasunezko jarduera arlo eta ekintza-lerroekin zuzenean lotuta daudenak.

=RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular la convocatoria de subvenciones a Ayuntamientos y otras entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco que durante el año 2009 realicen actividades y/o programas de educación para la movilidad segura.

Artículo 2.– Dotación económica.

1.– La dotación económica destinada a este Programa de subvenciones es de trescientos cincuenta mil (350.000) euros, con cargo a la partida presupuestaria correspondiente. El importe global consignado podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Interior, y con carácter previo a la resolución de las mismas, dándose publicidad de este extremo mediante la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Seguridad.

2.– A los efectos contemplados en la Orden del Departamento de Hacienda y Administración Pública de 26 de abril de 2007, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la concesión de las ayudas de la presente Orden queda condicionada a la existencia de crédito de pago adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2009.

Artículo 3.– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán ser entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente Orden, los Ayuntamientos y otras entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco que durante el año 2009 realicen actividades y/o programas de educación para la movilidad segura.

2.– No podrá concurrir a esta convocatoria la entidad solicitante que se encuentre sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se halle incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 4.– Actividades subvencionables.

Las subvenciones a que se refiere el artículo 1 se podrán solicitar por los siguientes conceptos:

– Actividades y/o programas educativos directamente relacionados con las áreas de actuación y líneas de acción prioritarias establecidas en el Plan Estratégico de Seguridad Vial 2007-2010.

– Mugikortasun segururako heziketaren eremuan, gizartearen sentiberatasuna eta parte-hartzea bultzatzen duten kanpainak eta jardunaldiak burutzea.

– Dibulgazio-materialak argitaratzea, mugikortasun segururako heziketa-baloreak sustatzen dituztenak.

– Arduradunak prestatzea, mugikortasun segururako hezkuntzako jarduerak edota programak garatzeko.

5. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honek araututako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste diru-laguntzekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Kasu horretan, emandako diru-laguntzaren kopurua gehiegizkoa litzatekeen zenbatekoan murriztuko da.

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honetako 2. artikuluan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa eskatzaileen artean banatuko da lehiaketa bidez, 12. artikuluan zehaztu diren balorazio-irizpideak kontuan izanik. Proportzionaltasunaren irizpidea erabiliko da diru-laguntzak emateko, honela: diru-kopurua eskaera guztien artean banatuko da balorazio fasean lortutako puntuazioaren ehunekoan eta diru-kopuru mugatua eta ezarritako portzentajeak errespetatuko dira, eskatutako zenbatekoa gainditu gabe.

2.– Zehaztutako gastuen behin betiko kostu erreala aurkeztutako aurrekontua baino txikiagoa bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztuko da, orduan diru-laguntzaren portzentajea oinarri berriaren gainean aplikatuko da.

3.– Zehaztutako gastuen behin betiko kostu erreala, berriz, aurkeztutako aurrekontua baino handiagoa balitz, emandako diru-laguntza ez da gehituko.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Interesa duten entitateek agindu honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren arabera beteriko eskaerak aurkeztu beharko dituzte eta aurkeztu ere Herrizaingo Saileko erregistro nagusian, hots, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean, edo bestela azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein egoitzatan, 45 egun naturaleko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

8. artikulua.– Dokumentazioa.

Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

– Realización de campañas y jornadas que promuevan la sensibilización y participación social en el ámbito de la educación para la movilidad segura.

– Publicación de materiales divulgativos que fomenten los valores de educación para la movilidad segura.

– Formación de las personas encargadas de desarrollar las actividades y/o programas de educación para la movilidad segura.

Artículo 5.– Compatibilidad con otras subvenciones.

La concesión de las subvenciones reguladas por la presente Orden será compatible con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra Administración o ente público o privado, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta, el importe de la subvención concedida se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

Artículo 6.– Cuantía de las subvenciones.

1.– La dotación económica prevista en el artículo 2 será distribuida entre los solicitantes por el procedimiento de concurso, atendiendo a los criterios establecidos en el artículo 12. A tal efecto, la concesión se realizará utilizando el criterio de proporcionalidad, de suerte que la dotación económica se distribuirá entre todas las solicitudes en proporción a la puntuación obtenida en la fase de valoración, sin rebasar la cuantía solicitada.

2.– En el caso de que el coste definitivo real de los gastos contemplados fuera inferior al del presupuesto presentado, la cuantía de la subvención concedida será minorada en la proporción que resulte, aplicándose entonces el porcentaje de la subvención sobre la nueva base.

3.– Si por el contrario, el coste definitivo real de los gastos contemplados fuera superior al presupuesto presentado, ello no supondrá incremento de la subvención concedida.

Artículo 7.– Presentación de solicitudes.

1.– Las entidades interesadas deberán presentar las solicitudes debidamente cumplimentadas, conforme al modelo normalizado que figura como anexo I de la presente Orden, en el registro general del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, sito en c/ Donostia-San Sebastián, 1 de Vitoria-Gasteiz, o en cualquiera de las dependencias a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el plazo de 45 días naturales, contados a partir del día siguiente al de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 8.– Documentación.

Las solicitudes se acompañarán de la siguiente documentación:

1.– Udal edo toki entitatean eskumena duen organoaren akordioa, diruz lagundu nahi diren jarduerak edota programak onartzen dituena.

2.– Azalpen txostena, zehaztasunez hauxe jasoko duena:

a) Udalerriko edo herriko mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko beharren diagnosia.

Diagnosiak udalerriko datu aipagarriak (istripuen estatistikak, biztanleen ezaugarriak eta mugikortasuna…) eta prestakuntzaren behar bereziak identifikatu behar ditu.

b) Jardueren edota programen zerrenda, beharren diagnosiaren egokitzapena zehaztuko duena.

Jarduera edota programa bakoitzean honakoak sartuko dira:

– Helburu bereziak.

– Zuzeneko prestakuntza-orduen kopurua.

– Metodologia. Erabili beharreko tresnak eta materialak erantsiko dira.

– Garatutako jardueren edota programen inpaktua ezagutzea ahalbidetzen duten ebaluazio-tresnak. Erabili beharreko ebaluazio-tresnak eta –erremintak erantsiko dira.

c) Jarduerak edota programak denboran kokatzeko egutegia.

d) Jardueren edota programen laburpen-fitxa agindu honen II. eranskinarekin bat.

3.– Azken 10 urteetan burututako bide-heziketa jarduerak edota programak garatzen izandako esperientziaren egiaztagiria. Horrelakorik ez dute egin behar Herrizaingo Sailak horretarako emandako diru-laguntzak jaso dituzten udalek.

4.– Proposatutako jarduera edota programen finantziazio-plana, atalka berezituriko aurrekontu osoa zehaztuz.

5.– Udaleko Idazkaritzak edota Esku-hartze alorrak, edo toki entitateak egindako egiaztagiria, diruz lagundu gabeko gastua estaltzeko finantza-ahalmenaren berri ematen duena.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Trafiko Zuzendaritzak aurkeztutako eskabidean antzemango balu aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak, baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikulukoak ere, ez direla betetzen, interesdunari jakinaraziko dio hamar eguneko epea duela akatsa zuzentzeko edo ezinbesteko agiriak aurkezteko. Eta, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman eta gero.

1.– Acuerdo del órgano competente del ayuntamiento o entidad local, por el que se aprueban las actividades y/o programas para cuya ejecución se solicita la ayuda.

2.– Memoria descriptiva, en la que se hará constar de forma suficientemente detallada:

a) Diagnóstico de necesidades en materia de educación para la movilidad segura en el municipio o localidad.

El diagnóstico debe identificar los datos relevantes del municipio o localidad (estadísticas de accidentes, características de la población y de su movilidad...) así como las necesidades específicas de formación.

b) Relación de actividades y/o programas donde se detalle la adecuación de las mismas con el diagnóstico de necesidades.

Cada actividad y/o programa incluirá:

– Objetivos específicos.

– Número de horas de formación directa.

– Metodología. Se adjuntarán los instrumentos y materiales a utilizar.

– Herramientas de evaluación que permitan conocer el impacto de las actividades y/o programas desarrollados. Se adjuntarán los instrumentos y herramientas de evaluación a emplear.

c) Calendario con la temporalización de las actividades y/o programas.

d) Ficha resumen de las actividades y/o programas conforme al anexo II de esta Orden.

3.– Acreditación documental de experiencia en el desarrollo de actividades y/o programas de educación vial realizados en los últimos 10 años. Estarán exentos de esta exigencia aquellos ayuntamientos que hayan recibido ayudas para este fin por parte del Departamento de Interior.

4.– Plan de financiación de las actividades y/o programas propuestos, detallándose el presupuesto total desglosado por partidas.

5.– Acreditación expedida por la Secretaría y/o Área de Intervención del ayuntamiento, o entidad local, de su capacidad financiera para cubrir el gasto no subvencionado.

Artículo 9.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Tráfico advirtiera que la solicitud presentada no reúne los requisitos establecidos en los artículos anteriores, así como los contenidos en el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, requerirá al solicitante para que, en el plazo de diez días, subsane la falta o aporte los documentos preceptivos, indicándole que de no hacerlo, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución emitida al efecto.

10. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeaz arduratuko den organoa.

Trafiko Zuzendaritzari dagozkio deialdi honetako laguntzak kudeatzeko lanak.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideen azterketa eta ebaluaziorako Balorazio Batzordea eratuko da, eta ondorengo kideek osatuko dute:

– Epaimahaiburua: Trafiko zuzendaria,

– Kideak: Trafiko Zuzendaritzako bi teknikari.

– Idazkaria: Herrizaingo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako teknikari bat.

2.– Balorazio Batzordeak erabakiak gehiengo sinplez hartuko ditu, agindu honetako 12. artikuluak ezarri dituen esleitzeko irizpideetan oinarrituz eta erabaki-proposamena Segurtasun sailburuordeari zuzenduko dio.

12. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

Emandako diru-laguntzen erabaki-proposamena egiteko, Balorazio Batzordeak irizpide eta portzentaje hauek izango ditu kontuan:

a) Aurkeztutako deskribapen-txostenaren kalitatea: gehienez % 40.

Irizpideak honela baloratuko dira:

– Udalerrian mugikortasun segururako hezkuntzaren arloan beharren diagnosia: gehienez 12 puntu.

– Jarduerak edota programak beharren diagnosiari eta «Mugikortasun Segururako Hezkuntzaren. Gaitasunen Gida» dokumentuari moldatzea: gehienez 12 puntu.

– Proposatutako jardueren edota programen prestakuntzaren inpaktu-maila: gehienez 6 puntu.

– Garatutako jardueren edota programen inpaktua ezagutzeko ebaluazio-tresnak: gehienez 6 puntu.

– Jardueretan erabili beharreko metodologia: gehienez 4 puntu.

b) Proposatutako jarduerak edota programak garatzeko orduan, udalerriko edo tokiko erakundeko gizarte-eragileen partaidetza eta inplikazio aktiboa errazteko aurreikusitako neurriak: gehienez % 15.

c) Jarduera bakoitzeko zuzeneko prestakuntza-orduen kopurua: gehienez % 35.

d) Azken 10 urteetan mugikortasun segururako hezkuntza-jarduerak edota –programak garatzen izandako esperientzia: gehienez % 10.

Artículo 10.– Órgano encargado de la gestión de las subvenciones.

Corresponderá a la Dirección de Tráfico, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 11.– Tribunal de Valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal de Valoración compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente: el Director de Tráfico.

– Vocales: dos técnicos de la Dirección de Tráfico.

– Secretario: un técnico de la Dirección de Servicios del Departamento de Interior.

2.– El Tribunal de Valoración tomará las decisiones por mayoría simple, de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos en el artículo 12 de la presente Orden, y elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Seguridad.

Artículo 12.– Criterios de adjudicación de las subvenciones.

Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones, el Tribunal de Valoración tendrá en cuenta los siguientes criterios y porcentajes:

a) Calidad de la memoria descriptiva presentada: hasta un máximo del 40%.

La valoración de este criterio se realizará del modo siguiente:

– Diagnóstico de necesidades en materia de educación para la movilidad segura en el municipio o localidad: hasta un máximo de 12 puntos.

– Adecuación de las actividades y/o programas con el diagnóstico de necesidades y con los contenidos incluidos en el documento «Educación para la Movilidad Segura. Guía de Competencias»: hasta un máximo de 12 puntos.

– Grado de impacto formativo de las actividades y/o programas propuestos: hasta un máximo de 6 puntos.

– Herramientas de evaluación que permitan conocer el impacto de las actividades y/ programas desarrollados: hasta un máximo de 6 puntos.

– Metodología a utilizar en las actividades: hasta un máximo de 4 puntos.

b) Medidas previstas para favorecer la participación e implicación activa de los distintos agentes sociales del municipio o entidad local en el desarrollo de las actividades y/o programas propuestos: hasta un máximo del 15%.

c) Número de horas de formación directa por cada actividad: hasta un máximo del 35%.

d) Experiencia en el desarrollo de actividades y/o programas de educación para la movilidad segura realizadas en los últimos 10 años: hasta un máximo del 10%.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agortutakoan, hiru hilabeteko epearen barruan hartuko du Segurtasun sailburuordeak deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko erabakia, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek ezagut dezaten.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluak dioenaren arabera, epea igaro ondoren ebazpena interesdunari jakinarazten ez bazaio, dagokion eskabidea ez dela onartu ulertuko da.

3.– Diru-laguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan badaude, oraindik izapidetzen egon daitekeen itzultze edo zigortze-prozedura bukatuta egotea.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Diru-laguntzen onuradun suertatu diren udal zein toki entitateek esleipenaren arrazoi izan diren materialak eta ekintzak eskuratu eta kontratatu beharko dituzte, eta faktura orijinalak edo eskumeneko organoak konpultsatutako kopiak Trafiko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte 2009ko abenduaren 1a baino lehen. Diru-laguntzak honela ordainduko dira:

a) Berariaz ezezkorik ematen ez bazaio, % 80 ordainduko da, agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak ematen dituen Segurtasun sailburuordearen ebazpena EHAAn argitaratu eta gero.

b) Gainontzeko % 20a, Trafiko Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) 2009ko abenduaren 1a baino lehen burutze-memoria aurkeztu eta gero ordainduko da; hauek jasoko dira memorian:

– Egindako jarduera edota programen zerrenda xehatua.

– Jarduera edota programa bakoitzeko hartzaile-kopurua eta dedikazio-orduak.

– Hartzaileengan jardueren inpaktua ebaluatzea, aginduaren 8.2.b) artikuluan eskainitako tresna eta erremintekin bat.

– Argitalpenak dituen jarduera edota programen kasuan, horien 10 ale gehituko dira.

Artículo 13.– Resolución.

1.– La Resolución de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria será dictada y notificada a los adjudicatarios, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal de Valoración, por el Viceconsejero de Seguridad en el plazo máximo de tres meses, a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Dicha resolución será publicada posteriormente en el Boletín Oficial del País Vasco para general conocimiento.

2.– Si una vez transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada al interesado resolución alguna, la solicitud correspondiente se entenderá desestimada, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 14.– Pago de la subvención.

Los ayuntamientos o entidades locales que resulten beneficiarias de las subvenciones vendrán obligados a realizar las adquisiciones, contrataciones y realizaciones que fueron el motivo de su adjudicación y a suministrar a la Dirección de Tráfico las facturas originales o fotocopias de las mismas compulsadas por el órgano competente antes del día 1 de diciembre de 2009. El importe de la subvención se abonará de la siguiente manera:

a) El 80% se hará efectivo, si no hubiere renuncia expresa, una vez publicada en el BOPV la Resolución del Viceconsejero de Seguridad por la que se conceden las subvenciones previstas en esta Orden.

b) El 20% restante se hará efectivo tras la presentación, con anterioridad al 1 de diciembre de 2009, ante la Dirección de Tráfico, calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 de Vitoria-Gasteiz de una Memoria de Ejecución que incluya:

– Relación detallada de actividades y/o programas realizados.

– N.º destinatarios y horas de intervención directa de cada actividad y/o programa.

– Evaluación del impacto de las actividades en el colectivo al que ha sido destinado, conforme a los instrumentos y herramientas aportadas en el artículo 8.2.b) de esta Orden.

– En el caso de las actividades y/o programas que incluyan publicaciones, se adjuntarán 10 ejemplares de los mismos.

– Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela dioen ebazpena, udal edo toki entitateko eskumeneko organoak emana, baita horri atxikitako sarrerak eta gastuak, diruz lagundutako gastuaren fakturak edo agiriak ere; eta, hala badagokio, helburu bererako bestelako diru-laguntzarik jasotzearen berri zehaztu beharko du.

15. artikulua.– Erakunde onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak jasoko dituen erakundeak betebeharrok ditu:

a) Emandako diru-laguntza onartzea, diru-laguntza ematen duen ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten duen agiria jaso eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epean, onuradunek zehazki eta idatziz honi uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza erabiltzea berez dagokion helbururako, salbu diru-laguntzaren baldintzak aldatzeari buruzko 16. artikuluan ezarritakoa aplikagarria gertatzen bada.

c) Beste administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik, helburu bera duten laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, Trafiko Zuzendaritzari jakinaraztea, hamar eguneko epean aipatu gorabehera jakiten denetik aurrera.

d) Aurkeztutako egitasmoan esleipena egiterakoan kontuan izandako gorabehera objektibo edo subjektiboen artean aldaketarik emanez gero, horren berri Trafiko Zuzendaritzari ematea, aurreko paragrafoan ezarritako epean.

e) Laguntza eman duen entitateak egindako egiaztapen-ekintzen menpe jarri eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren egitekoen barruan, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dieten adina informazio aurkeztu beharko diete.

f) Bere gain utzitako datu-bilketetan edo erregistratzeko beste tekniketan laguntzea, mugikortasun segururako hezkuntzako programak edota kanpainak ebaluatzeko.

g) Sortutako material guztietan Herrizaingo Saileko finantzazioa izan dela zehaztuko da argi eta garbi, bi administrazioen logotipoa ere sartuko da.

h) Egingo diren kartel, testu eta dokumentu guztiak euskaraz idatziko dira edota euskaraz eta gaztelaniaz.

i) Azterlan, programa, jardunaldi, argitalpen, eta abarrek genero-berdintasunaren ikuspegia izango dute eta hizkeran eta irudian bereizketa-kutsurik ez agertzea bermatuko dute.

– Resolución emitida por el órgano competente del ayuntamiento o entidad local, en el que conste el cumplimiento del objeto de la subvención concedida, así como la relación de ingresos y gastos afectos a la misma, las facturas o justificantes de la realización del gasto subvencionado, especificando, en su caso, la percepción de otras subvenciones para el mismo fin.

Artículo 15.– Obligaciones de la entidad beneficiaria.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida en las condiciones establecidas en la resolución de otorgamiento. En este sentido, si en el plazo de quince días contados a partir del día siguiente al recibo de la notificación de la concesión de la subvención, la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Destinar la subvención al objeto para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el artículo 16, relativo a la alteración de las condiciones.

c) Comunicar a la Dirección de Tráfico la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualquier administración o ente tanto público como privado, en el plazo de diez días contados desde el conocimiento de dicha circunstancia.

d) Comunicar a la Dirección de Tráfico, en el plazo establecido en el apartado anterior, la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

e) Someterse a las actuaciones de comprobación que efectúe la entidad concedente y facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

f) Colaborar en la recogida de datos y/o técnicas de registro que se le encomienden destinadas a la evaluación de programas y/o campañas de movilidad segura.

g) En la totalidad de los materiales generados debe especificarse claramente la financiación por parte del Departamento de Interior, así como incluir el logotipo de ambas administraciones.

h) Los carteles, textos y documentos que se elaboren se redactarán en euskera o bien en euskera y castellano.

i) Los estudios, programas, jornadas, publicaciones etc., incorporarán las perspectivas de igualdad y de género y no contemplarán elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada, edo bestelako erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, laguntza edo diru-laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko erabakia alda daiteke. Ondorio horietarako, Trafiko Zuzendaritzak dagokion likidazio-erabakia emango du; bertan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa egokitu egingo da.

17. artikulua.– Arauak ez betetzea.

Deialdi honetan eta diru-laguntza eman ahal izateko ezarri diren baldintzetako bat ez dela bete egiaztatzen bada, 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrera itzuli beharko da jasotako zenbateko osoa gehi dagozkion legezko interesak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herrizaingo sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 25a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

Artículo 16.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la correspondiente subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas y subvenciones concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Tráfico se dictará la oportuna resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de la subvención concedida.

Artículo 17.– Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento, de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre de 1997, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería general del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Interior, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2008.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

I. ERANSKINA

EAEKO UDAL ETA BESTE TOKI ENTITATE BATZUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, 2009AN MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZAKO JARDUERAK EDOTA PROGRAMAK BURUTZEKO.

ESKABIDE-ORRIA

Udal edo toki entitatearen datuak

Udal edo toki entitatea:	
Posta helbidea:	
PK:	Herria:
Tel.:	Posta elektronikoa:

Legezko ordezkariaren datuak

Deiturak eta izena:
NAN:
Betetzen duen kargua:

Harremanetarako pertsona

Deiturak eta izena:	
NAN:	
Betetzen duen kargua:	
Tel.:	Posta elektronikoa:

Eskabidearekin batera doazen dokumentuak

- ☐ Udal edo toki entitatean eskumena duen organoaren akordioa.
- ☐ Azalpen-memoria, 8.2 artikuluaren arabera.
- ☐ Azken 10 urteetan burututako bide-heziketa jarduerak edota programak garatzen lortutako esperientziaren agiria (salbu horretarako Herrizaingo Saileko diru-laguntzak jaso dituzten udalak).
- ☐ Proposatutako jarduera edota programen finantzazio-plana, atalka bereziturikо aurrekontu osoa zehaztuz.
- ☐ Udaleko Idazkaritzak edota Esku-hartze alorrak, edo toki entitateak egindako egiaztagiria, diruz lagundu gabeko gastua estaltzeko finantza-ahalmenaren berri ematen duena.

Adierazi nahi dut eskabide honetan azaldu ditudan datu guztiak egiazkoak direla eta eskabide honek betetzen dituela Herrizaingo sailburuaren 2008ko azaroaren 25eko Aginduan.

(e)n, 2008ko aren (e)(a)n

Legezko ordezkariaren sinadura eta udal edo toki entitate eskatzailearen zigilua.

Herrizaingo sailburua

II. ERANSKINA

JARDUEREN EDOTA PROGRAMEN LABURPEN-FITXA

Zk.	Jardueraren izenburua	Data	Zuzeneko prestakuntza-orduak

ANEXO I

SUBVENCIONES A AYUNTAMIENTOS Y OTRAS ENTIDADES LOCALES DE LA CAPV QUE DURANTE EL AÑO 2009 REALICEN ACTIVIDADES Y/O PROGRAMAS DE EDUCACIÓN PARA LA MOVILIDAD SEGURA

IMPRESO DE SOLICITUD

Datos del municipio o entidad local

Municipio o entidad local:	
Dirección postal:	
CP:	*Municipio:*
Tfno.:	*Correo electrónico:*

Datos de el/la representante legal

Apellidos y nombre:
DNI:
Cargo que ocupa:

Persona de contacto

Apellidos y nombre:	
DNI:	
Cargo que ocupa:	
Tfno.:	*Correo electrónico:*

Documentos que se acompañan a la solicitud

- ☐ *Acuerdo del órgano competente del Ayuntamiento o entidad local.*
- ☐ *Memoria descriptiva conforme al artículo 8.2.*
- ☐ *Acreditación documental de experiencia en el desarrollo de actividades y/o programas de educación vial en los últimos 10 años (excepto los ayuntamientos que hayan recibido ayudas para este fin por parte del Departamento de Interior).*
- ☐ *Plan de financiación de las actividades y/o programas propuestos, detallándose el presupuesto global por partidas.*
- ☐ *Acreditación expedida por la Secretaría y/o Área de Intervención del ayuntamiento o entidad local, de su capacidad financiera para cubrir el gasto no subvencionado.*

Declaro que son ciertos todos los datos presentados en esta solicitud y que la misma reúne todas las condiciones exigidas en la Orden de 25 de noviembre de 2008, del Consejero de Interior.

En , a de de 2008.

Firma de el/la representante legal y sello del municipio o entidad local solicitante.

Sr. Consejero de Interior

ANEXO II

FICHA RESUMEN DE ACTIVIDADES Y/O PROGRAMAS

N.º	*Título actividad*	*Fecha*	*N.º horas formación directa*